



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2025eko maiatzaren 27a

68. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### A SAILA:

##### **Foru-lege proiektuak:**

—11-25/LEY-00003. Foru-lege proiektua, Nafarroako administrazio publikoetan behin-behinekotasuna murrizteko langileen arloko aparteko eta premiazko neurriak onesten dituen (3. or.).

#### E SAILA:

##### **Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

—11-25/ITP-00015. Interpelazioa, herritarren konfiantza sendotu eta erakundeak indartze aldera Lehendakaritza eta Berdintasun Departamentuak eginen duenari buruzkoa. Ainhua Unzu Garate andreak egin du (11. or.).

—11-25/ITP-00016. Interpelazioa, Nafarroako Gobernuak zerga-arloan darabilen politika orokorrari buruzkoa. Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioak egin du (12. or.).

#### F SAILA:

##### **Galderak:**

—11-25/POR-00185. Galdera, gailu elektronikoen erabilera okerraren edo gehiegizko erabileraren arazoa dela-eta Nafarroako Gazteriaren Institutuak egiten duen lanari buruzkoa. Úrsula Pardo García andreak egin du (13. or.).

—11-25/POR-00186. Galdera, Nafarroako osasun-arreta jarraitu eta larrialdikoari buruzko funtzionamendu planari buruzkoa. Domingo González Martínez jaunak egin du (14. or.).

—11-25/POR-00187. Galdera, Maristetako 108 etxebizitza babestuen obren hasiera berriz ere atzeratu dela-eta hartu beharreko neurrii buruzkoa. Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak egin du (15. or.).

—11-25/POR-00189. Galdera, Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzan atzerriko hizkuntzak ikasteko programak arautzen dituzten 57 eta 58/2024 foru aginduak direla-eta Hezkuntza Departamentuak darabiltzan aurreikuspeni buruzkoa. Kevin Lucero Domingues jaunak egin du (15. or.).

—11-25/POR-00190. Galdera, babes-sisteman egon diren gazteen (bereziki etorkin gazteen) gizarteratze-mailari buruzkoa. María Olga Chueca Chueca andreak egin du (16. or.).

—11-25/POR-00191. Galdera, Nafarroako Erriberako hirigune historikoak leheneratu eta despopulazioari aurre egiteko tresna gisa biziberritze aldera hartzen ari diren zaharberritze-neurrii buruzkoa. Antonio Javier Lecumberri Urabayen jaunak egin du (16. or.).

—11-25/POR-00192. Galdera, Tuterako Reina Sofia Ospitalean zerbitzu presentzialak arian-arian kentzearen gaineko balorazioari buruzkoa. Leticia San Martín Rodríguez andreak egin du (17. or.).

—11-25/POR-00193. Galdera, etxebizitza-merkatuko tentsioa arintzeko neurrii buruzkoa. Kevin Lucero Domingues jaunak egin du (17. or.).

- 11-25/POR-00194. Galdera, Imarkoaingo hondakinen tratamendurako planta berriari buruzkoa. Félix Zapatero Soria jaunak egin du (18. or.).
- 11-25/POR-00195. Galdera, BSHren Ezkirozko planta ixtea ekidite aldera Nafarroako Gobernuak egindako zuzemenei eta enpresarekin nahiz balizko inbertitzaileekiko negoziazioen egoerari buruzkoa. Ana María Elizalde Urmeneta andreak egin du (18. or.).
- 11-25/POR-00196. Galdera, Iruñeko Udalaren haur-eskoletako euskarazko plazen eskaintzari buruzkoa. Pedro José González Felipe jaunak egin du (19. or.).
- 11-25/POR-00197. Galdera, ustezko ustelkeria-kasuak direla-eta hedabideetan jasotako informazioei buruzkoa. Emilio Jiménez Román jaunak egin du (19. or.).
- 11-25/POR-00198. Galdera, Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako Departamentuak Nafarroako industriaren berrikuntza, ikerketa eta garapenean duen zereginari buruzkoa. Mikel Asiain Torres jaunak egin du (20. or.).
- 11-25/POR-00199. Galdera, sortu berri den Fiskalitate Mahaian hartutako erabakiei buruzkoa. Irene Royo Ortín andreak egin du (21. or.).
- 11-25/POR-00200. Galdera, Tuterako Osasun Barrutian pediatriako zerbitzuak betetzeko neurriei buruzkoa. Irene Royo Ortín andreak egin du (21. or.).
- 11-25/POR-00201. Galdera, Espainiako Gobernuak mendekotasunaren arloko gastua finantzatzeari buruzkoa. María Isabel García Malo andreak egin du (22. or.).
- 11-25/POR-00202. Galdera, Gazako Zerrendan azken hilabete hauetan izandako gertaerei buruzkoa. Carlos Guzmán Pérez jaunak egin du (22. or.).
- 11-25/POR-00203. Galdera, Iruñeko Atzeritarren Bulegoko langileen erreibindikazioak direla-eta hartu beharreko neurriei buruzkoa. Javier Ollo Martínez jaunak egin du (23. or.).
- 11-25/POR-00204. Galdera, despopulazioaren arazoa dela-eta konponbideak bilatze aldera Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak prestatutako dokumentazioaren balorazioari buruzkoa. Pablo Azcona Molinet jaunak egin du (23. or.).
- 11-25/POR-00206. Galdera, Nafarroako Gobernuak Israelek Palestinako biztanleriaren genozidioari amaiera emateko ahaleginekin bat egiteko aurreikusten dituen ekintzei buruzkoa. Ramón Alzórriz Goñi jaunak egin du (24. or.).
- 11-25/POR-00207. Galdera, Nafarroako Gobernuak Israelek merkataritza-harremanak dituzten enpresekiko hartuko dituen neurri zehatzei buruzkoa. Laura Aznal Sagasti andreak egin du (24. or.).
- 11-25/POR-00208. Galdera, Nafarroako Gobernuak obrak esleitzean egindako kudeaketari buruzko UCOn txostenaren emaitzei buruzkoa. Javier García Jiménez jaunak egin du (25. or.).
- 11-25/POR-00209. Galdera, Nafarroako apartamentu turistikoaren egoerari buruzkoa. Daniel López Córdoba jaunak egin du (26. or.).
- 11-25/POR-00210. Galdera, Nafarroan AEAK jotako gaixoen laguntzei buruzkoa. Emilio Jiménez Román jaunak egin du (26. or.).
- 11-25/POR-00211. Galdera, Nafarroako Gobernuak Nafarroako Kontratazio Publikoaren Batzarrak Belateko tunelak bikoizteko obrak kontratatzeko prozedura berrikusteari uko egiteari buruzkoa. José Javier Esparza Abaurrea jaunak egin du (27. or.).
- 11-25/POR-00140. Galdera, Zubiarte Euskaltegiaren eta Euskararen Irakaskuntzarako Baliabide Zentroaren etorkizuneko kokapenari buruzkoa. Osoko Bilkuran izapidetzea (27. or.).
- 11-25/POR-00215. Galdera, Nafarroako Gobernuan 2024ko abenduaren 31n zegoen behin-behinekotasun tasa osoari buruzko informazioa eskuratzea eragotzi duten arrazoiei buruzkoa. Marta Álvarez Alonso andreak egin du (28. or.).
- 11-25/POR-00216. Galdera, 2007, 2011, 2015, 2019 eta 2024ko abenduaren 31n Nafarroako Foru Erkidegoko Administrazioan zegoen plantillari buruzko informazioa eskuratzea eragotzi duten arrazoiei buruzkoa. Marta Álvarez Alonso andreak egin du (28. or.).

#### G SAILA:

##### **Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- 11-25/ELCR-00001. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Gizarte Kontseilurako aukeratu behar dituen bost kideak hautatzea. Hautaigatzak aurkezteko epea luzatzea (29. or.).

#### H SAILA:

##### **Bestelako testu arau-emaileak:**

- 11-25/DLF-00001. 1/2025 Foru Lege-dekretua, maiatzaren 7koa, Nafarroako administrazio publikoetan behin-behinekotasuna murrizteko langileen arloko aparteko eta premiazko neurriak onesten dituen. Osoko Bilkurak baliozkotuko du (30. or.).

---

**A saila:**  
**FORU-LEGE PROIEKTUAK**

---

## **11-25/LEY-00003. Foru-lege proiektua, Nafarroako administrazio publiko- etan behin-behinekotasuna murrizteko langileen arloko aparteko eta premiazko neurriak onesten dituen**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko maiatzaren 26an eginiko bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Legebiltzarreko Osoko Bilkurak, 2025eko maiatzaren 22an egindako bilkuran, baliozkotu zuen 1/2025 Foru Lege-dekretua, maiatzaren 7koa, Nafarroako administrazio publikoetan behin-behinekotasuna murrizteko langileen arloko aparteko eta premiazko neurriak onesten dituen, eta erabaki zuen presako prozeduraz foru-lege proiektu gisa izapidetzea. Foru Lege-dekretua 2025eko maiatzaren 13ko 63. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 179. eta 182. artikuluetan ezarritakoarekin bat, ERABAKITZEN DA:

**1.** Xedatzea Nafarroako administrazio publikoetan behin-behinekotasuna murrizteko langileen arloko aparteko eta premiazko neurriak onesten dituen foru-lege proiektua presako prozeduraz izapidetu dadin.

**2.** Nafarroako Osoko Bilkuraren esku jartzea Nafarroako administrazio publikoetan behin-behinekotasuna murrizteko langileen arloko aparteko eta premiazko neurriak onesten dituen foru-lege proiektuaren izapidetzea zuzeneko eta irakurketa bakarrekoa izateari buruzko erabakia.

**3.** Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, eztabaidari ekiteko Osoko Bilkuraren egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan bukatuko dena. Zuzenketak Legebiltzarreko Mahaiari aurkeztu beharko zaizkio.

**4.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## **Foru-lege proiektua, Nafarroako administrazio publikoetan behin-behinekotasuna murrizteko langileen arloko aparteko eta premiazko neurriak onesten dituen**

### ZIOEN AZALPENA

Enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legearen bidez, enplegu publikoan dagoen behin-behinekotasun handia murrizteko beharrezkoak diren egiturazko erreformak egin ziren, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planarekin bat. Plan horrek Europako Batzordearen aldeko ebaluazioa jaso du. Lege horrek administrazio publikoetako aldi baterako enplegua egonkortzeko prozesu bat egitea aurreikusten zuen, helburua baita enplegu publikoan dagoen behin-behinekotasuna murriztea eta gehenez ere % 8ko egiturazko behin-behinekotasuna lortzea administrazio publiko guztietan.

Aipatutako abenduaren 28ko 20/2021 Legeak, hamargarren xedapen gehigarrian, xedatzen zuen hura Nafarroako Foru Komunitatean aplikatuko zela Konstituzioaren 149.1.18 artikuluan eta lehenengo xedapen gehigarrian eta Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoan ezarritako moduan.

Ildo horretan, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 49.1 artikulua araber, Nafarroari dagokio Foru Komunitateko funtzionario publikoen estatutu araubidearen gaineko eskumen eskusiboa, Estatuko oinarritzko legeriak sektore publikoko langileei onartzen dizkien funtsezko eskubideak eta betebeharrak errespetatuz. Eskumen horri jarraikiz eman zen maiatzaren

23ko 2/2022 Foru Lege-dekretua, zeinaren bidez neurriak hartzen baitziren Nafarroako Administrazio Publikoetan egonkortze prozesuak egiteko, Enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legearen ondorioz. Foru lege-dekretu hori baliozkotu eta foru-lege proiektu gisa izapidetu zen, eta horren emaitza izan zen uztailaren 1eko 19/2022 Foru Legea.

2024ko abenduaren 31 baino lehen amaitu behar zuten egonkortze prozesuei lotutako neurriek nolabaiteko eraginkortasuna izan dute. Aurrekoa gorabehera, hartutako neurriak ez dira nahikoak izan behin-behinekotasuna murrizteko aipatutako %8ko helburutik behera. Gainera, egiaztatu da hautapen eta lanpostuak betetzeko prozedurak arautzen dituen araudiaren zenbait alderdik, bai eta administrazio egoeretakoez ere, ez dutela ahalbidetzen behin-behinekotasun tasak murriztea, ezarritako helburua lortu arte.

Premia horri erantzuteko, borondatezko eszedentzia arautzeari dagokionez, ez da aplikatuko Nafarroako Administrazio Publikoaren zerbitzuko Langileen Estatutuaren testu bateginaren 26. artikulua (abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsi zen), foru lege-dekretu honek indarra hartu eta bi urteko epean.

Proposatutako aldaketek, zehazki, aldi bat ezartzen dute sarrerako hautapen prozedura batean parte hartu duten pertsonen lortutako plaza egon beharra borondatezko eszedentzia eskatu ahal izan aurretik; hala, bermatuko da benetan lan eginen dela parte hartu den hautapen prozeduran eskuratutako plaza, gutxienez aldi batez, plaza hori berriro bete aurretik.

Era berean, beste administrazio publiko batean zerbitzuak egiteko borondatezko eszedentzia ematea kasu honetara mugatzen da: xedeko administrazioan egin beharreko zerbitzuak finkoak izatea.

Hala ere, aurretik xedatutakotik salbuetsita geratzen dira Nafarroako toki entitateak.

Beste alde batetik, egoera horretatik lanera itzuliko dela ziurtatzeko, egun jakin batean sartzea aurreikusten da, aurrekontu-zuzkidura duen eta hautapen prozesu batean sartuta ez dagoen plaza huts bat dagoenean, araudia errealitate praktikora egokituz.

Horren ondotik, Nafarroako Administrazio Publikoaren zerbitzuko Langileen Estatutuaren testu bateginaren 88. artikulua aldatzen da; izan ere, beharrezkoa da araudia argitzea kontuan hartuta Nafarroan aplikatu beharreko araudia eta lekualdatze-lehiaketaren deialdia sarrerako deialdien aurretik egin beharra. Zehazki, hirugarren apartatuan, plaza hutsak betetzeko kontratuen azkentze orokortua ekar lezaketen interpretazio murriztaileak saihesteko, zehazten da administrazio-kontratudun langileek aldi baterako betetzen duten plaza jarraitu ahal izanen dutela, baldin eta plaza hutsa behin betiko betetzeko prozedura bat –izan sartzeko prozedura, izan lanpostua betetzeko prozedura– argitaratu bada kontratazioaren egunetik zenbatzen hasita hiru urteko epean.

Era berean, egonkortze prozeduren izapidetze elektronikoa esker, egiaztatu ahal izan da prozedurak ebazteko teknologia berriak erabiltzea oro har efizientea dela. Hori dela eta, sartzeko hautapen prozesuei eta lekualdatze-lehiaketei dagokionez, administrazio bideak errazteko neurriak hartzen dira, prozesu horiek behar duten azkartasuna ziurtatzeko. Neurri horien bidez, epeak murriztuko dira, eta izapide-egintzak Nafarroako Aldizkari Ofizialaren bidez argitaratu ordez, web-fitxen bidez argitaratuko dira. Horrek aukera ematen du aldi baterako langileek betetako plaza hutsak betetzeko prozedurak arintzeko.

Ildo beretik, lekualdatze-lehiaketak are arinago ebazteko, lanpostuko antzintasuna eta hizkuntzak baino ez dira baloratzen. Datu horiek, oro har, Administrazioaren esku daude, edo oso dokumentazio gutxi ematea eskatzen dute.

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari dagokionez, kategoria batzuetan profesional gutxi daudenez, komeni da egoera horren ondorioak arinduko dituzten neurriak ezartzea.

Alde horretatik, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari atxikitako langileen berariazko erregimena arautzen duen urriaren 20ko 11/1992 Foru Legearen 31. artikulua aldatzen da, aukera emateko oposizio sistema aplikatzeko, antzintasun txikiagoa duten pertsonen errazteko osasun arloan hutsik dauden plazetan sartzea, arauan aurreikusitako baldintzetan.

Halaber, aipatutako urriaren 20ko 11/1992 Foru Legearen 29.3 artikulua aldatzen da, barne har dezan, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari atxikitako langileei dagokionez, testu

bateginaren 88. artikuluan Nafarroako Administrazio Publikoetako langile guztientzat oro har ezarritako arau-azalpen bera.

Gainera, lekualdatze-lehiaketan ebazpena arintzeko, bi urtez eteten da Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan sartzea eta lanpostuak betetzea arautzen duen azaroaren 22ko 347/1993 Foru Dekretuaren 21. artikulua 1.3 apartatuaren aplikazioa, eta aldi baterako erregulazio berri bat ezartzen da, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileentzat xedatutakoaren baldintza berberetan.

Horren guztiaren ondorioz, foru lege-dekretu honek administrazio publikoen zerbitzura dauden langileak arautzeko Nafarroako Foru Komunitatean dagoen araudi propioa aldatu nahi du.

Zehazki, foru lege-dekretu honek honako arau hauei eraginen die: Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren testu bategina (abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsi zen); Nafarroako Osasun Zerbitzua-Osasunbideari atxikitako langileen berariazko erregimena arautzen duen urriaren 20ko 11/1992 Foru Legea; Nafarroako Administrazio Publikoetako lanpostuak betetzeko Erregelamendua onesten duen azaroaren 6ko 215/1985 Foru Dekretua, eta Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan sartu eta bertako lanpostuak betetzeko modua arautzen duen azaroaren 22ko 347/1993 Foru Dekretua.

Proiektua Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko langile funtzionarioen eta estatutupekoen Negoziazio Mahai Orokorrera eraman da, 2025eko martxoaren 21ean eta apirilaren 10ean, 16an eta 23an.

Azaldutako arrazoiek foru lege-dekretu hau onestea eskatzen dute, aparteko eta premiazko beharizanaren ondorioz aipatutako neurriak berehala hartzeko, justifikazio memorian luze azaltzen den bezala.

Azkenik, kontuan harturik foru lege-dekretu honek ukitzen dituela Nafarroako administrazio publiko guztiak, eta hortaz, baita toki entitateak ere, Toki Araubidearen Foru Batzordeak proiektua aztertu zuen, eta txostena eman, 2025eko maiatzaren 5ean.

Horregatik guztiagatik, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren

10eko 13/1982 Lege Organikoaren 21 bis artikuluan jasotako baimena erabiliz, Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako kontseilariak eta Osasuneko kontseilariak proposaturik, eta Nafarroako Gobernuak bi mila eta hogeita bosteko maiatzaren zazpian egindako bilkuran hartutako erabakiarekin bat etorritik,

DEKRETATZEN DUT:

**1. artikulua.** Abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsitako Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren testu bategina aldatzea.

Bat. Aldatzen da abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsirik Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren testu bateginaren 9. artikulua. Honela gelditu da:

“9. artikulua.

Funtzionario izateko, bata bestearen ondoren baldintza hauek bete beharko dira:

a Hautapen probak gainditzea.

b Agintari eskudunak egindako izendapena. Izendapena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko da.

c Zin egin edo hitz ematea Nafarroako Foru Araubidea begiratu, Konstituzioa eta legeak onartu, eta karguari atxikirik dauden eginbeharrak zintzo beteko dituela.

d Plazaren jabetza hartzea, izendapen ebazpenean horretarako zehazten den egunean, aski justifikaturik dauden kasuetan izan ezik”.

Bi. Aldatzen da abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsirik Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren testu bateginaren 30. artikulua. Honela gelditu da:

“30. artikulua.

Plaza gorderik ez duten funtzionarioak zerbitzura itzuliko dira plaza hutsak daudenean, baldin eta sartzeko hautapen prozedurarako deialdi batean sartuta ez badaude”.

Hiru. Aldatzen da abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsirik Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren testu bateginaren 88.3 artikulua. Honela gelditu da:

“88. artikulua.

3. Artikulu honen lehen apartatuaren b) letran xedatutako kasuan, administrazio-kontratadun langileek betetako plaza hutsak betetzeko, lanpostuak betetzeko edo mugigarritasunerako arauz aurreikusitako mekanismoetako edozein erabili beharko da.

Hala ere, langilea administrazio-araubidean kontratatu zenetik hiru urte igarotakoan, kontratua azkenduko da, eta karrerako funtzionarioek soilik betetzen ahalko dute plaza huts hori, kasuan kasuko hautapen prozesua hutsik geratu ezean; kasu horretan, langileak berriro kontratatzen ahalko dira administrazio-araubidean.

Salbuespenez, administrazio-kontratadun langileek aldi baterako betetzen duten plazan jarraitu ahal izanen dute, baldin eta plaza hori lan eskaintza publiko batean sartu bada eta sartzeko edo lanpostuak betetzeko dagokion deialdia argitaratu bada, kontratazioaren egunetik zenbatzen hasita hiru urteko epean. Kasu horretan, deialdia ebatzi arte bete ahal izanen du, eta kargu-uzteak ez du konpentsazio ekonomikorik ekarriko”.

Lau. Hogeita zortzigarren xedapen gehigarria gehitzen da abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsiriko Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren testu bateginean.

“Hogeita zortzigarren xedapen gehigarria.

1. Nafarroako Administrazio Publikoek deitutako sarrerako hautapen prozesuen izapideak eta jarduketak epe hauen arabera izanen dira:

a) Deialdian parte hartzeko eskabideak aurkezteko epea: 20 egun natural.

b) Deialdian onartutako eta baztertutako behin-behineko zerrendei alegazioak aurkezteko epea: 10 egun baliodun.

c) Behin-behineko emaitzei alegazioak aurkezteko epea: 5 egun baliodun.

d) Prozeduran parte hartzeko betebeharrak egiaztatzeko eta eskaintako lanpostu hutsak aukeratzeko epea: 10 egun baliodun.

e) Funtzionario izendatzeko edo, hala badagokio, lan-kontratadun finko gisa kontratatzeko behar den dokumentazioa aurkezteko epea: 10 egun

baliodun, izendapen edo kontratazio proposamena argitaratzen denetik aurrera.

2. Prozeduran onartutako eta baztertutako pertsonen behin-behineko nahiz behin betiko zerrendak eta hautatutako pertsonak izendatzeko proposamena dagokion deialdiaren web-fitxan argitaratuko dira.

3. Izendapen-ebazpenean ezartzen den egunean hartuko dute plazen jabetza hautatutako pertsonak, aski justifikaturik dauden kasuetan izan ezik”.

Bost. Hogeita bederatzigarren xedapen gehigarria gehitzen da abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsiriko Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren testu bateginean.

“Hogeita bederatzigarren xedapen gehigarria.

1. Administrazio publikoek deitutako lekualdatze-lehiaketako prozesuen izapideak eta jarduketak epe hauen arabera izanen dira:

a) Prozeduran parte hartzeko eskabideak aurkezteko epea: 10 egun natural.

b) Deialdian onartutako eta baztertutako behin-behineko zerrendei alegazioak aurkezteko epea: 5 egun baliodun.

c) Merezimenduen behin-behineko balorazioari alegazioak aurkezteko epea: 5 egun baliodun.

d) Lanpostu hutsak aukeratzeko epea: 5 egun baliodun.

2. Prozeduran onartutako eta baztertutako behin-behineko eta behin betiko zerrendak deialdiaren web-fitxan argitaratuko dira. Baztertutako inor ez badago, zuzenean onetsiko da onartuen behin betiko zerrenda, eta aginduko da argitara dadila deialdiaren web-fitxan”.

Sei. Azken xedapena gehitzen da abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsiriko Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren testu bateginean.

“Azken xedapena.

Izapidetze epeak dituzten hogeita zortzigarren eta hogeita bederatzigarren xedapen gehigarriak Nafarroako Gobernuak eguneratu ahal izanen ditu erregelamenduzko arauen bidez”.

**2. artikulua.** Nafarroako Administrazio Publiko-  
etako lanpostuak betetzeko erregelamendua  
onesten duen azaroaren 6ko 215/1985 Foru  
Dekretua aldatzea.

Bat. Nafarroako Administrazio Publikoetako  
lanpostuak betetzeko erregelamendua onesten  
duen azaroaren 6ko 215/1985 Foru Dekretuaren  
9. artikulua aldatzen da. Honela gelditu da:

“9. artikulua.

1. Lekualdatze-lehiaketetan, gehienez 46 pun-  
tuko balioa izanen duen eskala baten barnean,  
honako elementu hauek baloratuko dira, eta hone-  
la banatuta:

a) Antzintasuna deialdiaren xede den lanpos-  
tuan, dagokion administrazioan, 1 puntu urteko:  
gehienez 40 puntu.

Urteen kopurua osoa ez bada, emanen da  
zerbitzuan egindako aldiari proportzioan dagokion  
puntuazioa.

Deialdia argitaratu ondoren egindako zerbi-  
tzuak ez dira baloratuko.

b) Frantsesa, ingelesa edo alemana jakiteaga-  
tik (Europar Batasuneko laneko hizkuntzak diren  
aldetik): 2 puntu gehienez, hizkuntza horietako  
bakoitzeko.

Apartatu honetan alegatutako merezimenduak  
baloratuko dira lanpostuaren edukiarekin zerikusia  
badute soilik.

Deialdi bakoitzean zehaztuko da zer plazatan  
baloratzen diren b) apartatu honetan ezarritako  
merezimenduak, banan-banan aztertu ondoren  
plaza horien ezaugarri espezifikoak.

2. Aurreko apartatuan ezarritakoaz gain, eus-  
kararen ezagutza baloratuko da plazak dauden  
eremuaren arabera, honako irizpide hauei jarrai-  
kiz:

a) Eremu euskaldunean: 4,6 puntu gehienez.

b) Eremu mistoan: 2,76 puntu gehienez.

Deialdi bakoitzean zehaztuko da eremu misto-  
ko zein plazatan baloratzen den euskararen  
ezagutza, herritarrei ematen zaien arreta- edo  
tratu-mailaren arabera, plaza horien ezaugarri  
espezifikoak banan-banan aztertu ondoren. Balo-  
razio horretatik kanpo geldituko dira euskara jaki-  
tea nahitaezkoa duten plazak.

3. Aurreko apartatuetan aipatzen diren elemen-  
tuak baloratzeko, jarraituko zaie erregelamendu  
honi eta, erregelamendu hau garatzeko adminis-  
trazio publiko bakoitzeko organo eskudunak onar-  
tzen dituen merezimenduen baremoei.

4. Lekualdatze-lehiaketetan deialdien oinarrietan,  
ezarri daiteke lehiakideek gairitu behar dutela  
prestakuntza ikastaro bat”.

Bi. Nafarroako Administrazio Publikoetako lan-  
postuak betetzeko erregelamendua onesten duen  
azaroaren 6ko 215/1985 Foru Dekretuaren 39.  
artikulua aldatzen da. Honela geldituko da:

“39. artikulua.

Lehiaketan parte hartzen dutenen puntuazioan  
berdinketarik gertatuz gero, administrazio publiko-  
etan zerbitzuak egiten antzintasun handiena  
duten pertsonen alde ebatziko da. Berdinketak  
jarraitzen badu, kalifikazio epaimahaiak horretara-  
ko berariaz eginen duen zozketa bakar baten  
bidez erabakiko da”.

**3. artikulua.** Nafarroako Osasun Zerbitzua-  
Osasunbideari atxikitako langileen berariazko  
erregimenari buruzko urriaren 20ko 11/1992 Foru  
Legea aldatzea.

Bat. Urriaren 20ko 11/1992 Foru Legearen  
29.3 artikulua aldatzen da (foru lege horren bidez  
Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari atxi-  
kitako langileen berariazko erregimena arautzen  
da). Honela geldituko da:

“3. Artikulu honen lehen apartatuaren b) letran  
xedatutako kasuan, administrazio-kontratudun lan-  
gileek betetako plaza hutsak betetzeko, lanpos-  
tuak betetzeko edo mugigarritasunerako arauz  
aurreikusitako mekanismoetako edozein erabili  
beharko da.

Hala ere, langilea administrazio-araubidean  
kontratatu zenetik hiru urte igarotakoan, kontratua  
azkenduko da, eta karrerako funtzionarioek soilik  
betetzen ahalko dute plaza huts hori, kasuan  
kasuko hautapen prozesua hutsik geratu ezean;  
kasu horretan, langileak berriro kontratatzen ahal-  
ko dira administrazio-araubidean.

Salbuespenez, administrazio-kontratudun lan-  
gileek aldi baterako betetzen duten plazan jarraitu  
ahal izanen dute, baldin eta plaza hori lan eskain-  
tza publiko batean sartu bada eta argitaratu bada  
sartzeko, lanpostuak betetzeko edo aurreko egoki-

tzapenari dagokion deialdia, kontratazioaren eguetik zenbatzen hasita hiru urteko epean. Kasu horretan, deialdia ebatzi arte bete ahal izanen du, eta kargu-uzteak ez du konpentsazio ekonomikorik ekarriko”.

**Bi.** Urriaren 20ko 11/1992 Foru Legearen 31. artikulua aldatzen da (foru lege horren bidez Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari atxikita-ko langileen berriazko erregimena arautzen da). Honela geldituko da:

“31. artikulua.

1. Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko langile izateko hautapena deialdi publiko bidez egiten da, eta dagozkion hautapen probak oposizio edo oposizio-lehiaketa bidez egiten dira.

Salbuespenez, merezimendu-lehiaketaren sistema erabili ahal izanen da osasun arloko fakultatibo espezialistei dagozkien A mailako plazak direnean, baldin eta horietan jarduteko bereziki kualifikatutako ezagutzak behar badira.

Sarrerako salbuespenezko prozedura bat denez, Osasun Departamentuak sartze horien berri emanen dio Nafarroako Parlamentuari, plazaz jabetu eta hurrengo hiru hilabeteen barruan.

Oposizio sistema erabili ahal izanen da deialdia onesteko unean hutsik dauden eta deialdia egin aurreko urtearen erdia baino gehiago hutsik egon diren plazak betetzeko, Osasuneko Mahai Sektorialari alde aurretik jakinarazita.

2. Eraginkortasun arazoak direla-eta oposizio-lehiaketa bidezko hautapen prozedura aukeratzenean, prozedurak dituen ondoz ondoko bi faseen ordena aldatu ahal izanen da.

Osasun arlokoak ez diren estamentuetan sartzeko, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko langileentzat modu orokorrean ezarritako araudia aplikatuko da”.

3. Deialdien oinarrietan ezarri ahal izanen da lehiaketa fasea baztertzaileria izanen dela. Lehiaketa faseari emandako puntuazioak ezin izanen du inola ere gaitu oposizio-lehiaketa osoan lor daitekeen gehieneko puntuazioaren % 40, eta lehiaketa fasean lortutako puntuazioa ezin izanen da aplikatu oposizio faseko arketak gaituzeko”.

**4. artikulua.** Nafarroako administrazio publikoetan behin-behinekotasuna murrizteko borondatezko eszedentzien araubidea arautzea.

Eteten da abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsitako Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren testu bateginaren 26. artikulua aplikazioa, bi urteko epean, foru lege-dekretu honek indarra hartzen duenetik aurrera.

Ondorioz, bi urteko aldi horretan, borondatezko eszedentzietan honako araudi hau aplikatuko zaie:

“1. Borondatezko eszedentzia deklaratzeko ahalko da, funtzionarioek eskatuta, ondoko kasu hauetan:

a) Zerbitzuak egiten hasten bada beste administrazio publiko batean edo langilearena ez den beste administrazio baten mendekoa den eta berezko nortasun juridikoa duen entitate batean, baldin eta gutxienez bi urtez jardunean edo egoera parekatuan egon bada, plazaren jabetza hartzen denetik kontatzen hasita.

Apartatu honetan xedatutakotik salbuetsiko dira Nafarroako toki entitateetako funtzionarioak, borondatezko eszedentziaren modalitate hori lortu ahal izanen baitute beste administrazio publiko batean edo nortasun juridiko propioa duen beste administrazio baten mendeko erakunde batean zerbitzuak ematen hasten badira.

b) Administrazio publiko beraren baitan, maila bereko edo desberdineko beste lanpostu bat eskuratzen duen funtzionarioak, unitate organiko burutza edo zuzendaritza direnak izan ezik, bietako bat aukeratu beharko du, eta beste lanpostuan borondatezko eszedentzian deklaratzeko eskatzen ahalko du.

c) Interesdunak alde aurretik eskatuta, borondatezko eszedentzian deklaratzeko dira administrazio publiko berean maila bereko edo desberdineko beste lanpostu batean aldi baterako zerbitzuak egiten hasten diren funtzionarioak, lehen hemezortzi hilabeteetan betetzen zuten plaza gordeta, baldin eta gutxienez bi urtez jardunean edo antzeko egoeran egon badira, funtzionarioen araubideko plazaz jabetzen direnetik zenbatzen hasita.

d) Alderdi politikoetan edo erakunde sindikal edo profesionaletan zuzendaritza karguetan aritzeko, baldin eta kargu horietan aritzea eta funtzio publikoan lan egitea bateragarriak ez badira.

e) Funtzionarioaren interes partikularrengatik, jatorrizko plaza hemezortzi hilabetez gordeko da, zerbitzuaren beharrek horretarako bidea ematen badute eta egiaztatzen baldin bada eskaera egin aurreko bi urteetan, gutxienez, jardunean edo horren antzeko lan egoera batean aritu dela, funtzionarioen araubideko plazaz jabetzen direnetik zenbatzen hasita.

2. Borondatezko eszedentziak ez du denbora mugarik izanen, hura ematen den kasu guztietan.

3. Borondatezko eszedentzian dauden funtzionarioek ezin izanen dute zerbitzura itzultzea eskatu, egoera horretan urtebete egin arte. Lanera itzultzea erabaki ondoren, ezarritako egunean itzuli beharko dira. Hala egin ezean, langileak galdu egingen du funtzionario izaera.

4. Borondatezko eszedentzian daudenek lortu-tako maila, gradua eta antzintasuna gordeko dituzte, baina ez dute eskubide ekonomikorik sortuko eta ez zaie kontatuko, inongo ondorioetarako, egoera horretan eman duten denbora.

**5. artikulua.** Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren eremuan behin-behinekotasuna murrizteko lekualdatze-lehiaketan araubidea arautzea.

Eteten da Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan sartzea eta lanpostuak betetzea arautzen duen azaroaren 22ko 347/1993 Foru Dekretuaren 21. artikulua 1.3 apartatuaren aplikazioa, bi urteko epean, foru lege-dekretu honek indarra hartzen duenetik denetik aurrera.

Ondorioz, bi urteko aldi horretan, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren lekualdatze-lehiaketei honako araudi hau aplikatuko zaie:

“Lekualdatze-lehiaketetan, gehienez 46 puntuko balioa izanen duen eskala baten barnean, honako elementu hauek baloratuko dira eta hone-la banatuta:

a) Antzintasuna deialdiaren xede den lanpostuan, dagokion administrazioan, 1 puntu urteko gehienez 40 puntu.

Urteen kopurua osoa ez bada, emanen da zerbitzuan egindako aldiari proportzioan dagokion puntuazioa.

Deialdia argitaratu ondoren egindako zerbitzuak ez dira baloratuko.

b) Frantsesa, ingelesa edo alemana jakiteagatik (Europar Batasuneko laneko hizkuntzak diren aldetik): 2 puntu gehienez, hizkuntza horietako bakoitzeko.

Apartatu honetan alegatutako merezimenduak baloratuko dira lanpostuaren edukiarekin zerikusia badute soilik.

Deialdi bakoitzean zehaztuko da zer plazatan baloratzen diren b) apartatu honetan ezarritako merezimenduak, banan-banan aztertu ondoren plaza horien ezaugarri espezifikoak.

Aurreko apartatuan ezarritakoaz gain, euskararen ezagutza baloratuko da plazak dauden eremuaren arabera, honako irizpide hauei jarraikiz:

a) Eremu euskaldunean: 4,6 puntu gehienez.

b) Eremu mistoan: 2,76 puntu gehienez.

Deialdi bakoitzean zehaztuko da eremu mistoko zein plazatan baloratzen den euskararen ezagutza, herritarrei ematen zaie arreta- edo tratu-mailaren arabera, plaza horien ezaugarri espezifikoak banan-banan aztertu ondoren. Balorazio hori ez da egingen euskararen ezagutza nahitaezkoa den plazetan”.

#### **Xedapen gehigarri bakarra.**

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak 2025eko maiatzean egingen du barne-egokitzapeneko edo lekualdaketa lehiaketetarako deialdia, gaur egun egiten ari diren enplegu publiko eskaintzetako lanpostuei dagozkienak.

**Xedapen indargabetzaile bakarra.** Araudia indargabetzea.

Indarrrik gabe gelditzen dira foru lege-dekretu honetan ezarritakoaren kontrakoak diren maila bereko edo apalagoko xedapen guztiak.

**Azken xedapenetako lehena.** Erregelamendu mailako babesa.

Foru lege-dekretu honek aldatzen dituen erregelamenduzko arauetan jasotako zehaztapenak aldatu ahal izanen dira haiek jasotzen dituen aruari dagokion erregelamendu mailako arauen bidez.

**Azken xedapenetako bigarrena.** Nafarroako Parlamentura igortzea.

Foru lege-dekretu hau Nafarroako Parlamentura igorriko da baliozkotu dezan, Nafarroako Foru

Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 21 bis artikuluan ezarritakoaren arabera.

**Azken xedapenetako hirugarrena.** Indarra hartzea.

Foru lege-dekretu honek indarra hartuko du Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharramunean.

---

---

**E saila:**  
**INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

**11-25/ITP-00015. Interpelazioa, herritarren konfiantza sendotu eta erakundeak indartze aldera Lehendakaritza eta Berdintasun Departamentuak eginen duenari buruzkoa**

*AINHOA UNZU GARATE ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko maiatzaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ainhoa Unzu Garate andreak egindako interpelazioa, herritarren konfiantza sendotu eta erakundeak indartze aldera Lehendakaritza eta Berdintasun Departamentuak eginen duenari buruzkoa.

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**INTERPELAZIOAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Ainhoa Unzu Garatek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babe-

sean, Lehendakaritzako eta Berdintasuneko kontseilariarentzako interpelazioa aurkezten du.

**Zioen azalpena**

Politikarekiko desafekzioa gero eta handiagoa den eta erakunde demokratikoen legitimitatea zalantzan jartzen den testuinguru batean, ezinbestekoa da botere publikoek neurri proaktiboak hartzea erakundeen kalitatea eta gizartearen konfiantza indartzeko. Egonkortasun demokratikoa ezin da ziurtzat eman: beharrezkoa da etengabea izatea gardentasunarekiko, kontu-ematearekiko, herritarren parte-hartzearekiko eta kudeaketa publikoaren osotasunarekiko konpromisoa.

Erronka horiek Nafarroarenak ere badira. Horregatik, Lehendakaritzako eta Berdintasuneko kontseilaria interpelatzen dut, ea zer egiten ari den herritarren konfiantza indartzeko, erakundeak indartzeko eta gobernantza-eredu eredugarria, gardena eta gizartetik hurbil dagoena sendotzeko.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 21ean

Foru parlamentaria: Ainhoa Unzu Gárate

## **11-25/ITP-00016. Interpelazioa, Nafarroako Gobernuak zerga-arloan darabilen politika orokorrari buruzkoa**

### *UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO TALDE PARLAMENTARIOAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko maiatzaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioak egindako interpelazioa, Nafarroako Gobernuak zerga-arloan darabilen politika orokorrari buruzkoa.

**2.** Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

**3.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **INTERPELAZIOAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioaren eledun José Javier Esparza Abaurrea jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, Nafarroako

Gobernuak zerga-arloan darabilen politika orokorrari buruzko interpelazio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Zioen azalpena

Zerga-politika gobernuaren ekintzaren funtsezko gaia da, herritarrek, enpresek eta autonomoek beren gain hartu behar duten presioa ezartzen baitu. Funtsezkoa da beste autonomia-erkidego batzuekin lehiatzeko industriendako erakargarriak izateari begira edo zerbitzu publikoak mantentzeari begira.

Azken hamarkada honetako zerga-politikaren ondorioz, Nafarroa da bere herritarrei edo enpresei zerga gehien ezartzen dizkien autonomia-erkidegoa.

Gauzak horrela, hausnarketa politikoa egin beharra dago Parlamentuan.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 22an

Foru parlamentaria: José Javier Esparza Abaurrea

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**11-25/POR-00185. Galdera, gailu elektronikoen erabilera okerraren edo gehiegizko erabileraren arazoa dela-eta Nafarroako Gazteriaren Institutuak egiten duen lanari buruzkoa**

*ÚRSULA PARDO GARCÍA ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko maiatzaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Úrsula Pardo García andreak egindako galdera, gailu elektronikoen erabilera okerraren edo gehiegizko erabileraren arazoa dela-eta Nafarroako Gazteriaren Institutuak egiten duen lanari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Úrsula Pardo García andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio lehendakariorde eta Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako gazteek, beste erregio batzuetakoek bezala, beren ongizateari, garapen pertsonalari eta abarri eragiten dieten erronka batzuei egin behar diete aurre. Gailu elektronikoa gaizki erabiltzea edo gehiegi erabiltzea erronka bat da, eta heldu egin behar zaio.

Nola lan egiten du Nafarroako Gazteriaren Institutuak arazo horren aurrean?

Iruñean, 2025eko maiatzaren 20an

Foru parlamentaria: Úrsula Pardo García

## **11-25/POR-00186. Galdera, Nafarroarako osasun-arreta jarraitu eta larrialdikoari buruzko funtzionamendu planari buruzkoa**

*DOMINGO GONZÁLEZ MARTÍNEZ JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko maiatzaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Domingo González Martínez jaunak egindako galdera, Nafarroarako osasun-arreta jarraitu eta larrialdikoari buruzko funtzionamendu planari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikita dagoen foru-parlamentari Txomin González Martínezek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Osasuneko

kontseilariak Legebiltzarraren Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Igaro da EH Bildu talde parlamentarioak 11-24/MOC-00118 erregistro-zenbakiarekin aurkeztutako mozioan jasotako epea. 2024ko urriaren 17ko Osoko Bilkuran eztabaidatu zen mozioan honako proposamen hau onetsi zen:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua eta Osasun Departamentua premiatzen ditu 2025eko lehen hiruhilekoan osasun-arreta jarraitu eta larrialdikoari buruzko funtzionamendu plan bat aurkez dezan Nafarroarako eta, aurkeztu ezean, Erriberriko Osasun Eskualde Oinarrizkoaren Eten-gabeko Arretarako Gunea berriz ere ezar dezan.

Hori dela eta, honako hau jakin nahi dut:

Osasuneko kontseilariak ba al du asmorik osasun-arreta jarraitu eta larrialdikoari buruzko funtzionamendu plana, EH Bilduren mozioan jasotakoa, aurkezteko?

Iruñean, 2025eko maiatzaren 20an

Foru parlamentaria: Txomin González Martínez

## 11-25/POR-00187. Galdera, Maristetako 108 etxebizitza babestuen obren hasiera berriz ere atzeratu dela-eta hartu beharreko neurriei buruzkoa

*JUAN LUIS SÁNCHEZ DE MUNIÁIN LACASIA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko maiatzaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak egindako galdera, Maristetako 108 etxebizitza babestuen obren hasiera berriz ere atzeratu dela-eta hartu beharreko neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikita dagoen Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak honako galdera hau aurkezten dio Etxebizitzako kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer neurri hartu duzu edo hartuko duzu Maristetako 108 etxebizitza babestuen obren hasiera berriz ere atzeratu dela-eta? Izan ere, atzerapen horrek esleipen-hartzaileen ziurgabetasuna eta babesgabetasuna areagotzen du.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 22an.

Foru parlamentaria: Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia

## 11-25/POR-00189. Galdera, Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzan atzerriko hizkuntzak ikasteko programak arautzen dituzten 57 eta 58/2024 foru aginduak direla-eta Hezkuntza Departamentuak darabiltzan aurreikuspenei buruzkoa

*KEVIN LUCERO DOMINGUES JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko maiatzaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Kevin Lucero Domingues jaunak egindako galdera, Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzan atzerriko hizkuntzak ikasteko programak arautzen dituzten 57 eta 58/2024 foru aginduak direla-eta Hezkuntza Departamentuak darabiltzan aurreikuspenei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikita dagoen Kevin Lucero Domingues jaunak,

Parlamentuko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Hezkuntzako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

2024an, Hezkuntza Departamentuak Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzan atzerriko hizkuntzak ikasteko programak arautzen dituzten 57 eta 58/2024 foru aginduak onetsi zituen.

Atzerriko hizkuntzak ikasteko LOMLOEk ezarritako eskumen-esparru berrian oinarritzen dira arau horiek, eta 2025/2026 ikasturtean ezartzea aurreikusuten da.

Hezkuntza Departamentuaren ustez, foru agindu horiek zertan lagunduko dute hobetzen atzerriko hizkuntzen ikaskuntza?

Iruñean, 2025eko maiatzaren 22an

Foru parlamentaria: Kevin Lucero Domingues

## 11-25/POR-00190. Galdera, babes-sisteman egon diren gazteen (bereziki etorkin gazteen) gizarteratze-mailari buruzkoa

*MARÍA OLGA CHUECA CHUECA ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko maiatzaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Olga Chueca Chueca andreak egindako galdera, babes-sisteman egon diren gazteen (bereziki etorkin gazteen) gizarteratze-mailari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Olga Chueca Chueca andreak,

Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun diezaion:

Babes-sistematik heldu diren gazteek etapa konplikaturat hartzen dute lan-bizitzarako trantsizioa; izan ere, gure gizartean ohikoa dena baino lehenago lortu behar dute autonomia, eta, gainera, desabantaila handiagoko egoeretatik abiatzen dira, normalean bizi-arlo garrantzitsuetan gabeziak izaten dituztelako eta haien gizarte-laguntzako sistema askoz ere ahulagoa delako.

Zein da babes-sisteman egon diren gazteen (bereziki etorkin-jatorriko gazteen) gizarteratze-maila?

Iruñean, 2025eko maiatzaren 22an

Foru parlamentaria: Olga Chueca Chueca

## 11-25/POR-00191. Galdera, Nafarroako Erriberako hirigune historikoak leheneratu eta despulazioari aurre egiteko tresna gisa biziberritze aldera hartzen ari diren zaharberritze-neurriei buruzkoa

*ANTONIO JAVIER LECUMBERRI URABAYEN JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko maiatzaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Antonio Javier Lecumberri Urabayen jaunak egindako galdera, Nafarroako Erriberako hirigune historikoak leheneratu eta despulazioari aurre egiteko tresna gisa biziberritze aldera hartzen ari diren zaharberritze-neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikita dagoen Javier Lecumberri Urabayen jaunak, Legebiltzarraren Erregelamenduak xedatzen duenaren babesean, honako galdera hau egiten dio Lurralde Kohesiorako kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer zaharberritze-neurri ari dira hartzen Nafarroako Erriberako hirigune historikoak leheneratu eta despulazioari aurre egiteko tresna gisa?

Iruñean, 2025eko maiatzaren 22an

Foru parlamentaria: Javier Lecumberri Urabayen

## **11-25/POR-00192. Galdera, Tuterako Reina Sofia Ospitalean zerbitzu presentzialak arian-arian kentzearen gaineko balorazioari buruzkoa**

*LETICIA SAN MARTÍN RODRÍGUEZ ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko maiatzaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Leticia San Martín Rodríguez andreak egindako galdera, Tuterako Reina Sofia Ospitalean zerbitzu presentzialak arian-arian kentzearen gaineko balorazioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Leticia San Martín Rodríguez andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Osasuneko kontseilari jauna: zer balorazio egiten duzu Tuterako Reina Sofia Ospitalean zerbitzu presentzialak arian-arian kentzeari buruz eta zer neurri hartuko duzu horiek jarraitzen dutela bermatzeko?

Iruñean, 2025eko maiatzaren 22an

Foru parlamentaria: Leticia San Martín Rodríguez

## **11-25/POR-00193. Galdera, etxebizitza-merkatuko tentsioa arintzeko neurriei buruzkoa**

*KEVIN LUCERO DOMINGUES JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko maiatzaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Kevin Lucero Domingues jaunak egindako galdera, etxebizitza-merkatuko tentsioa arintzeko neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Kevin Lucero Domingues jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio hirugarren lehendakariorde eta Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Iragan maiatzaren 19an, Nafarroako Gobernuak etxebizitza-merkatuaren tentsiopeko gune deklaratu zituen ofizialki 21 udalerrri.

Deklarazio horrekin batera, neurrien eta jarduketan plan zabal bat onetsi zen, gune horietako etxebizitza-merkatuaren egoerari heltzeko.

Zer neurri jasotzen dira plan horretan eta Gobernuaren ustez nola lagunduko dute etxebizitza-merkatuaren tentsioa arintzen?

Iruñean, 2025eko maiatzaren 22an

Foru parlamentaria: Kevin Lucero Domingues

## **11-25/POR-00194. Galdera, Imarkoingo hondakinen tratamendurako planta berriari buruzkoa**

*FÉLIX ZAPATERO SORIA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko maiatzaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Félix Zapatero Soria jaunak egindako galdera, Imarkoingo hondakinen tratamendurako planta berriari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikia dagoen eta Nafarroako Gorteetako kide den Félix Zapatero Soria jaunak honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer neurri hartzen ari da Nafarroako Gobernua Imarkoain 2025erako aurreikusitako hondakinen tratamendurako planta berriak Nafarroako Hondakinen Planaren helburuak beteko dituela bermatzeko, hau da, zabortegira doazen etxeko isurketak 2027rako % 25era murriztuko direla bermatzeko?

Iruñean, 2025eko maiatzaren 22an

Foru parlamentaria: Félix Zapatero Soria

## **11-25/POR-00195. Galdera, BSHren Ezkirozko planta ixtea ekidite aldera Nafarroako Gobernuak egindako zuzemenei eta enpresarekin nahiz balizko inbertitzaileekiko negoziazioen egoerari buruzkoa**

*ANA MARÍA ELIZALDE URMENETA ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko maiatzaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana María Elizalde Urmeneta andreak egindako galdera, BSHren Ezkirozko planta ixtea ekidite aldera Nafarroako Gobernuak egindako zuzemenei eta enpresarekin nahiz balizko inbertitzaileekiko negoziazioen egoerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Ana Elizalde Urmeneta andreak honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuko Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

BSH enpresak Ezkirozko plantaren egoerari buruzko albiste eta informazio kontraesankorrak argitaratu dira. Planta hori ekainaren 16an itxiko dela aurreikusten da, eta 660 langile ingururi eragingen dio zuzenean. Horiei enpresa laguntzaileenak gehitu behar zaizkie:

Nafarroako Gobernua zer zuzemen ari da egiten planta ixtea ekiditeko eta zertan dira enpresarekiko nahiz balizko inbertitzaileekiko negoziazioak?

Iruñean, 2025eko maiatzaren 22an

Foru parlamentaria: Ana Elizalde Urmeneta

## 11-25/POR-00196. Galdera, Iruñeko Udalaren haur-eskoletako euskarazko plazen eskaintzari buruzkoa

*PEDRO JOSÉ GONZÁLEZ FELIPE JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko maiatzaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Pedro José González Felipe jaunak egindako galdera, Iruñeko Udalaren haur-eskoletako euskarazko plazen eskaintzari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxi-

kita dagoen Pedro González Felipe jaunak honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Iruñeko Udaleko Hezkuntzako zinegotziak haur-eskoletako eskariari buruzko azterlan bat egin zuen aurreko legegintzaldian, eta Iruñeko Udalaren haur-eskoletako 2025-2026 ikasturterako aurreinskripzioak berretsi egin du eskaintako hizkuntza berekietako bakoitzeko plazen eskariaren portzentajea azterlan hartatik heldu den berbera dela.

Zergatik baimendu da eskaintako euskarazko plazak gehiago izatea azken urteotan eskaintakoak baino?

Iruñean, 2025eko maiatzaren 22an

Foru parlamentaria: Pedro González Felipe

## 11-25/POR-00197. Galdera, ustezko ustelkeria-kasuak direla-eta hedabideetan jasotako informazioei buruzkoa

*EMILIO JIMÉNEZ ROMÁN JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko maiatzaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Emilio Jiménez Román jaunak egindako galdera, ustezko ustelkeria-kasuak direla-eta hedabideetan jasotako informazioei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroari, zure alderdiari eta zure gobernuari eragiten dieten ustezko ustelkeria-kasuei buruzko informazioa agertu dira hedabideetan, adjudikazio publikoak direla-eta. Nafarroako Gobernuko lehendakari andrea, kezkarik edo egonezinik sentitzen al duzu informazio horiek ikusita?

Iruñean, 2025eko maiatzaren 22an

Foru parlamentaria: Emilio Jiménez Román

## **11-25/POR-00198. Galdera, Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako Departamentuak Nafarroako industriaren berrikuntza, ikerketa eta garapenean duen zereginari buruzkoa**

*MIKEL ASIAIN TORRES JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko maiatzaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Asiain Torres jaunak egindako galdera, Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako Departamentuak Nafarroako industriaren berrikuntza, ikerketa eta garapenean duen zereginari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Geroa Bai talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Mikel Asiain Torres jaunak, Parlamentuko Erregelamenduak xedatzen duenaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako kontseilari Mikel Irujo Amezagak maiatzaren 29ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Berrikuntzak eta ikerketak zeregin erabakigarria dute gure gizarteko hainbat eremutan, are gehiago bizitzen ari garen aldaketa- eta ziurgabe-

tasun-garaiotan. I+G+b funtsezko tresna da etorkizunerantz aurrera egiteko, ezagutza-helburu berriak lortzeko, instrukzio-maila handiagoak lortzeko –maila guztietan–, eta egungo mundu globalizatuan lehiatu ahal izateko –ez soilik ikuspegi ekonomikotik–.

Gainera, garrantzi handiagoa hartzen du gurea bezalako erkidego batean, non industriak, berriz ere gogora dezagun, bere BPGaren % 31 egiten baitu. Beharrezkoa da, beraz, "berritu ala hil" atsotitza bizirik mantentzea, gure garapen-egorrari eusteko, horixe izan baita, neurri handi batean, daukagun ongizate-estatua ahalbidetu duena.

Nafarroako Gobernuari dagokio, I+G+bko Nafarroako Sistemarekin batera (SINAI), Nafarroan bultzada zientifikoa sustatzen saiatzea, Foru Komunitateko teknologia- eta industria-sarearen talentua eta izaera berritzailea aitortuz.

Badakigu enpresen I+G+b une onean dagoela Nafarroan, inbertsioaren ikuspegitik, eta horregatik galdetzen diogu Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako kontseilariari.

Zer eginkizun betetzen ari da Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako Departamentua Nafarroako industriaren berrikuntzan, ikerketan eta garapenean?

Iruñean, 2025eko maiatzaren 22an

Foru parlamentaria: Mikel Asiain Torres

## **11-25/POR-00199. Galdera, sortu berri den Fiskalitate Mahaian hartutako erabakiei buruzkoa**

*IRENE ROYO ORTÍN ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko maiatzaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Irene Royo Ortín andreak egindako galdera, sortu berri den Fiskalitate Mahaian hartutako erabakiei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioari atxikita dagoen Irene Royo Ortín andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkezten du Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer erabaki hartu dira sortu berri den fiskalitate-mahaian?

Iruñean, 2025eko maiatzaren 22an

Foru parlamentaria: Irene Royo Ortín

---

## **11-25/POR-00200. Galdera, Tuterako Osasun Barrutian pediatriako zerbitzuak betetzeko neurriei buruzkoa**

*IRENE ROYO ORTÍN ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko maiatzaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Irene Royo Ortín andreak egindako galdera, Tuterako Osasun Barrutian pediatriako zerbitzuak betetzeko neurriei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioari atxikita dagoen Irene Royo Ortín andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkezten du Osasuneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer neurri hartuko dira pediatria-zerbitzuak betetzeko, Tuterako osasun-barrutiak bere pediatrietako bat galdu ondoren?

Iruñean, 2025eko maiatzaren 22an

Foru parlamentaria: Irene Royo Ortín

## **11-25/POR-00201. Galdera, Espainiako Gobernuak mendekotasunaren arloko gastua finantzatzeari buruzkoa**

*MARÍA ISABEL GARCÍA MALO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko maiatzaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea María Isabel García Malo andreak egindako galdera, Espainiako Gobernuak mendekotasunaren arloko gastua finantzatzeari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioari atxikita dagoen Maribel García Malo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkezten du Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak Espainiako Gobernuari eskatuko al dio mendekotasunaren arloko gastuaren % 50 bere gain har dezan? Izan ere, Eusko Jaurlaritzarekin horretara konprometitu da.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 22an

Foru parlamentaria: Maribel García Malo

## **11-25/POR-00202. Galdera, Gazako Zerrendan azken hilabete hauetan izandako gertaerei buruzkoa**

*CARLOS GUZMÁN PÉREZ JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko maiatzaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Carlos Guzmán Pérez jaunak egindako galdera, Gazako Zerrendan azken hilabete hauetan izandako gertaerei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioko Carlos Guzmán Pérezek, Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer balorazio politiko egiten du Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilariak azken hilabeteetan Gazako Zerrendan izan diren gertaerez?

Iruñean, 2025eko maiatzaren 22an

Foru parlamentaria: Carlos Guzmán Pérez

## 11-25/POR-00203. Galdera, Iruñeko Atzerritarren Bulegoko langileen erreibindikazioak direla-eta hartu beharreko neurriei buruzkoa

JAVIER OLLO MARTÍNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko maiatzaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier Ollo Martínez jaunak egindako galdera, Iruñeko Atzerritarren Bulegoko langileen erreibindikazioak direla-eta hartu beharreko neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Javier Ollo Martínez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilari Begoña Alfaro García andreak maiatzaren 29ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Atzerritarrei buruzko erregelamendu berria indarrean sartu denez, eta atzerritarren bulegoetan –baita Iruñeko bulegoan ere– lan egiten duten langileek baliabide pertsonal eta material gehiago eta soldata gehiago eskatu dituztenez, honako hau galdetzen dugu:

Zer neurri hartuko du Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako Departamentuak?

Iruñean, 2025eko maiatzaren 22an

Foru parlamentaria: Javier Ollo Martínez

## 11-25/POR-00204. Galdera, despopulazioaren arazoa dela-eta konponbideak bilatze aldera Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak prestatutako dokumentazioaren balorazioari buruzkoa

PABLO AZCONA MOLINET JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko maiatzaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Pablo Azcona Molinet jaunak egindako gaurkotasan handiko galdera, despopulazioaren arazoa dela-eta konponbideak bilatze aldera Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak prestatutako dokumentazioaren balorazioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioaren eledun Pablo Azcona Molinetek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko kontseilari José Mari Aierdik maiatzaren 29ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak (FNMC) dokumentu bat eman dio duela gutxi Nafarroako Gobernuari, zeinean jasotzen baitira Nafarroako toki-entitateek landa-eremuari begira egin dituzten proposamenak, despopulazioari aurre egiteko Alde horretatik, zure departamentua landa garapenaren eta despopulazioaren etorkizuneko legian jasoko diren neurriak lantzen ari da. Hori dela-eta, zer balorazio egiten duzu despopulazioaren arazoa dela-eta konponbideak bilatze aldera Nafarroako

Udal eta Kontzejuen Federazioak prestatutako dokumentuari buruz?

Iruñean, 2025eko maiatzaren 22an

Foru parlamentaria: Pablo Azcona Molinet

---

## **11-25/POR-00206. Galdera, Nafarroako Gobernuak Israelek Palestinako biztanleriaren genozidioari amaiera emateko ahaleginekin bat egiteko aurreikusten dituen ekintzei buruzkoa**

*RAMÓN ALZÓRRIZ GOÑI JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko maiatzaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ramón Alzórriz Goñi jaunak egindako gaurkotasun handiko galdera, Nafarroako Gobernuak Israelek Palestinako biztanleriaren genozidioari amaiera emateko ahaleginekin bat egiteko aurreikusten dituen ekintzei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioaren eledun Ramón Alzórriz Goñi jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak salatu egin du Israelek Palestinari egindako genozidioa, eta giza eskubideekiko konpromiso irmoa adierazi du, argi utzita ez dela ezer egin gabe geratuko eskubide horiek urratuz gero.

Bere eskumenak baliatuz, zer ekintza aurreikusi ditu Nafarroako Gobernuak Israelek Palestinako biztanleriaren genozidioari amaiera emateko ahaleginekin bat egiteko?

Iruñean, 2025eko maiatzaren 25ean

Foru parlamentaria: Ramón Alzórriz Goñi

---

## **11-25/POR-00207. Galdera, Nafarroako Gobernuak Israelekin merkataritza-harremanak dituzten enpresekiko hartuko dituen neurri zehatzei buruzkoa**

*LAURA AZNAL SAGASTI ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko maiatzaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Laura Aznal Sagasti andreak egindako gaurkotasun handiko galdera, Nafarroako Gobernuak Israelekin merkataritza-

harremanak dituzten enpresekiko hartuko dituen neurri zehatzei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Laura Aznal Sagastik, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuako lehendakariak Legebiltzarraren Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nazioarteko legeak behin eta berriz bete gabe geratu, giza eskubideak sistematikoki urratu, Israelek Palestinako herriarekiko genozidioa gauzatu eta Gazako egoera larriagotu egiten dela ikusita, joan den ostiralean Nafarroako Gobernuako lehendakariak honako hau adierazi zuen: "Gober-

nu honek Gazako zerrendako genozidioa salatu nahi du, ez du beste alde batera begiratuko giza eskubideen urraketa mingarriaren aurrean".

Era berean, adierazi zuen «egoera larriagotu denez, presio-neurriak ezarri behar direla bere eskumenen esparruan», eta, hala badagokio, Israeli lotutako enpresekin merkataritza-harremanak haustea baloratu behar dela.

Zein neurri zehatzetan gauzatuko ditu Nafarroako Gobernuak adierazpen horiek?

Iruñean, 2025eko maiatzaren 25ean

Foru parlamentaria: Laura Aznal Sagasti

---

## **11-25/POR-00208. Galdera, Nafarroako Gobernuak obrak esleitzean egindako kudeaketari buruzko UCOn txostenaren emaitzei buruzkoa**

*JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko maiatzaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak egindako gaurkotasun handiko galdera, Nafarroako Gobernuak obrak esleitzean egindako kudeaketari buruzko UCOn txostenaren emaitzei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide eta Nafarroako Alderdi Popularra (PPN) talde parlamentarioaren eledun Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuako lehendakariak maiatzaren 29ko Osoko Bilkuran erantzuteko:

Beldur al da Chivite lehendakaria UCOn txostenaren emaitzek gaizki utziko ote duten Nafarroako Gobernuaren kudeaketa obrak esleitzeari dagokionez?

Iruñean, 2025eko maiatzaren 26an

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

## 11-25/POR-00209. Galdera, Nafarroako apartamentu turistikoen egoerari buruzkoa

*DANIEL LÓPEZ CÓRDOBA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko maiatzaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Daniel López Córdoba jaunak egindako gaurkotasun handiko galdera, Nafarroako apartamentu turistikoen egoerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioko parlamentari Daniel López Córdoba, Legebiltzarraren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Kultura, Kirol eta Turismoako kontseilariak 2025eko maiatzaren 29ko Osoko Bilkuran erantzun dezan.

Joan den astean jakin genuen turismo-ostatuaren 39 titular zehatu zituztela Nafarroako Turismo Erregistroan inskribatuta ez egoteagatik. Duela gutxi jakin dugu, halaber, Kontsumoak estatuan etxebizitzaren turistikoen legearen kanpoko 65.000 iragarki blokeatu zituela, indarrean dagoen legeria betetzen ez zutenak, aldi berean agerian utzita alokairu turistikoak izan baduela eragina etxebizitzaren prezioan.

Zer balorazio egiten duzu apartamentu turistikoek gure erkidegoan duten egoerari buruz?

Iruñean, 2025eko maiatzaren 26an

Foru parlamentaria: Daniel López Córdoba

## 11-25/POR-00210. Galdera, Nafarroan AEAK jotako gaixoen laguntzei buruzkoa

*EMILIO JIMÉNEZ ROMÁN JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko maiatzaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Emilio Jiménez Román jaunak egindako gaurkotasun handiko galdera, Nafarroan AEAK jotako gaixoen laguntzei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Gaurkotasun handiko galdera, 2025eko maiatzaren 29ko Osoko Bilkurarako:

Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilari andrea. Ba al dakizu laguntza osoak ez zaizkiela iristen ari AEAK jotako gaixoei Nafarroan?

Iruñean, 2025eko maiatzaren 26an

Foru parlamentaria: Emilio Jiménez Román

## **11-25/POR-00211. Galdera, Nafarroako Gobernuak Nafarroako Kontratazio Publikoaren Batzarrak Belateko tunelak bikoizteko obrak kontratatzekeo prozedura berrikusteari uko egiteari buruzkoa**

*JOSÉ JAVIER ESPARZA ABAURREA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko maiatzaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Javier Esparza Abaurrea jaunak egindako gaurkotasun handiko galdera, Nafarroako Gobernuak Nafarroako Kontratazio Publikoaren Batzarrak Belateko tunelak bikoizteko obrak kontratatzekeo prozedura berrikusteari uko egiteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioaren ele-dun José Javier Esparza Abaurrea jaunak gaurkotasun handiko honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuak lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Lehendakari andrea, uste al duzu erabaki zuzena izan zela Nafarroako Gobernuak Nafarroako Kontratazio Publikoaren Batzarrak Belateko tunelak bikoizteko obrak kontratatzekeo prozedura berrikusteari uko egitea?

Iruñean, 2025eko maiatzaren 26an

Foru parlamentaria: José Javier Esparza Abaurrea

## **11-25/POR-00140. Galdera, Zubiarte Euskaltegiaren eta Euskararen Irakaskuntzarako Baliabide Zentroaren etorkizuneko kokapenari buruzkoa**

### **OSOKO BILKURAN IZAPIDETZEA**

2025eko maiatzaren 26an eginiko bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Xedatzea Legebiltzarreko Osoko Bilkuran izapidetu dadin Eneka Maiz Ulaiar andreak egindako galdera, Zubiarte Euskaltegiaren eta Euskararen Irakaskuntzarako Baliabide Zentroaren etor-

kizuneko kokapenari buruzkoa. Galdera, 2025eko apirilaren 4ko 43. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## **11-25/POR-00215. Galdera, Nafarroako Gobernuan 2024ko abenduaren 31n zegoen behin-behinekotasun tasa osoari buruzko informazioa eskuratzea eragotzi duten arrazoiei buruzkoa**

*MARTA ÁLVAREZ ALONSO ANDREAK EGIN DU*

2025eko maiatzaren 26an eginiko bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentario-ko Marta Álvarez Alonso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 16.4 artikuluan ezarritakoarekin bat, eskatu du deitzen den Osoko Bilkuran sar dadin ezohiko galdera bat, zeinaren bidez jakin nahi baita ea zerk eragotzi duen 11-25/PEI-00434 espediente-zenbakiari buruzko informazioa berehala eman dadin Mahaiak egindako errekerimendua betetzea.

Aipatu artikuluekin eta Erregelamenduko 42.1 seigarrena eta zazpigarrena artikuluekin bat, ERABAKITZEN DA:

1. Izapidetzeko onartzea Marta Álvarez Alonso andreak egindako ezohiko galdera, Nafarroako Gobernuan 2024ko abenduaren 31n zegoen behin-behinekotasun tasa osoari buruzko informazioa eskuratzea eragotzi duten arrazoiei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Deitzen den lehenbiziko Osoko Bilkuran izapidetu dadin agintzea.

4. Galdera Nafarroako Gobernuari igortzea, behar diren ondorioetarako.

5. Erabaki hau Marta Álvarez Alonso andreaki jakinaraztea.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

## **11-25/POR-00216. Galdera, 2007, 2011, 2015, 2019 eta 2024ko abenduaren 31n Nafarroako Foru Erkidegoko Administrazioan zegoen plantillari buruzko informazioa eskuratzea eragotzi duten arrazoiei buruzkoa**

*MARTA ÁLVAREZ ALONSO ANDREAK EGIN DU*

2025eko maiatzaren 26an eginiko bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentario-ko Marta Álvarez Alonso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 16.4 artikuluan ezarritakoarekin bat, eskatu du deitzen den Osoko Bilkuran sar dadin ezohiko galdera bat, zeinaren bidez jakin nahi baita ea zerk eragotzi duen 11-25/PEI-00443 espediente-zenbakiari buruzko informazioa berehala eman dadin Mahaiak egindako errekerimendua betetzea.

Aipatu artikuluekin eta Erregelamenduko 42.1 seigarrena eta zazpigarrena artikuluekin bat, ERABAKITZEN DA:

1. Izapidetzeko onartzea Marta Álvarez Alonso andreak egindako ezohiko galdera, 2007, 2011, 2015, 2019 eta 2024ko abenduaren 31n Nafarroako Foru Erkidegoko Administrazioan zegoen plantillari buruzko informazioa eskuratzea eragotzi duten arrazoiei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Deitzen den lehenbiziko Osoko Bilkuran izapidetu dadin agintzea.

4. Galdera Nafarroako Gobernuari igortzea, behar diren ondorioetarako.

5. Erabaki hau Marta Álvarez Alonso andreaki jakinaraztea.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

**11-25/ELCR-00001. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Gizarte Kontseilurako aukeratu behar dituen bost kideak hautatzea**

*HAUTAIGATZAK AURKEZTEKO EPEA LUZATZEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko maiatzaren 26an eginiko bilkuran, Eledunen Bartzarrak erabakia hartu ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioko eledunak eskatu du Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Gizarte Kontseilurako aukeratu behar dituen bost kideak hautatzeko hautagaiak aurkezteko epea luzatzea.

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 42.1.bederatzigarrena artikularekin bat, honako hau ERABAKITZEN DA:

**1.** Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Gizarte Kontseilurako aukeratu behar dituen bost kideak hautatzeko hautagaitzak aurkezteko epea 2025eko ekainaren 3ko 17:30ak arte luzatzea.

**2.** Erabaki hau talde parlamentarioen eledunei jakinaraztea eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

---

**H saila:**  
**BESTELAKO TESTU ARAU-EMAILEAK**

---

**11-25/DLF-00001. 1/2025 Foru Lege-dekretua, maiatzaren 7koa, Nafarroako administrazio publikoetan behin-behinekotasuna murrizteko langileen arloko aparteko eta premiazko neurriak onesten dituen**

*OSOKO BILKURAK BALIOZKOTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2025eko maiatzaren 22an egindako bilkuran, baliozkotu zuen 1/2025 Foru Lege-dekretua, maiatzaren 7koa, Nafarroako administrazio publikoetan behin-behinekotasuna murrizteko langileen arloko aparteko eta premiazko neurriak onesten dituen, eta erabaki zuen presako prozeduraz foru-lege proiektu gisa izapidetzea. Foru Lege-dekretua 2025eko maiatzaren 9ko 91. Nafarroako

Aldizkari Ofizialean eta 2025eko maiatzaren 13ko 63. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Legebiltzarreko Erregelamenduaren 182,6. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---



